

Maiatzaren 19ko 14/2009 FORU DEKRETUA, zenbait zerga prozedura ebazteko epeak finkatu eta horiek ez ebazteak dakartzan ondorioak ezartzen dituen.

Urriaren 17ko 81/2000 Foru Dekretuak Ogasun eta Finantza Departamentuak tramitatu behar dituen zerga kudeaketako prozedura jakin batzuk ebazteko epeak eta prozedura horiek epe barruan ez ebazteak dakartzan ondorioak finkatu zituen.

Zerga alorreko prozeduretan azaroaren 26ko 30/1992 Legea ordezkio izaeraz aplikatzea saihestearren onartu zen foru dekretu hori. Izan ere, aipatutako legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Jardunbide Erkidearenak, 42.3 artikuluan dio prozeduretako arauetan gehieneko eperik ezartzen ez denean, epea hiru hilabetekoa izango dela. Era berean 42.4 artikulua dio herri administrazioek prozedura zerrendak argitaratu behar dituztela eta eguneratuta eduki, eta horietan adierazita egongo direla bai prozeduren gehieneko epeak eta bai administrazioaren isiltasunak ekarriko lituzkeen ondorioak.

30/1992 Legearen prozedurazko xedapenak zerga prozeduretan ordezkio izaeraz aplikatu beharrak –lege horren bosgarren xedapen gehigarriak hala behartzen zuelako–, eta prozedura horietan zergen berariazko araudia aplikatzea hobetsi izanak, uztailaren 27ko 66/1993 Foru Dekretua onartzea ekarri zuen. Geroago, beste dekretu batek hartu zuen haren tokia, goian aipatu dugun 81/2000 Foru Dekretuak hain zuzen.

Ondoren, martxoaren 8ko 21/2005 Foru Araua onartu zen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, eta horrek sekulako aldaketa ekarri zuen gai honetan, 100. artikulua espresuki arautzen baititu kontu horiek guztiak. Horrela, bere 1. apartatuan dio dagokion zergak aplikatzeko prozedura erregulatzen duen araudiak finkatuko duela zein den ebazpena jakinarazteko gehieneko epea. Prozeduren arau erregulatzailerik gehieneko eperik finkatzen ez dutenean, sei hilabetekoa izango da.

Bestalde, aipatutako 100. artikulua 5. apartatuan jasotakoaren arabera, interesatuak eskatuta hasitako prozeduretan gehieneko epea ebazpen espresurik jakinarazi gabe amaitzeak haien araudi erregulatzailerik ezartzen dituen ondorioak izango ditu. Ondorio horietarako, zergak aplikatzeko prozedura orotan espresuki erregulatu beharko da beren ustezko egintzen erregimena.

Horrelakorik ez bada erregulatu, interesatuek ulertu ahal izango dute beren eskaerak isiltasun administratiboz onetsi direla. Aldiz, eskaera egiteko eskubideaz baliatzeko prozeduretan aurkeztutakoak eta egintzak eta xedapenak inpugnatzekoetan egindakoak hortik kanpo geratzen dira, isiltasunak kasu horietan ezezko ondorioak dakartzalako.

Artikulu horren 6. apartatuak, bere aldetik, dio ofizioz hasitako prozeduretan, gehieneko epea ebazpen espresurik jakinarazi gabe amaitzen bada, horrek

tributuak aplikatzeko prozedura bakoitzaren araudian aurreikusitako ondorioak sortuko dituela.

Erregulazio espresurik ez dagoenean, honako hauek izango dira ondorioak:

— Prozeduretatik eskubideak aitortu edo eratu baldin balitezke edo bestelako egoera juridiko indibidualizatuak sortu, zergapekoek ezetsitzat jo ahal izango dituzte, isiltasun administratiboz, prozeduratik erator litezkeen aldeko ondorioak.

— Prozedurek ondorio negatiboak edo zergapetzekoak eragin ditzaketenean, prozedura iraungi egingo da.

Erregulazio berriak, aurrekoak ez bezala, ezinbesteko egiten du 81/200 Foru Dekretua berrikustea bertan araututa dauden prozedurak egunean jartzeko, horiek ebazteko epeei eta isiltasunaren ondorioei dagokienez.

Azaldutakoa kontuan harturik, beharrezko iritzi da alderdi horiek guztiak arautuko dituen foru dekretu bat prestatzea zergen foru arau orokor berria oinarri hartuta.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT

1. artikulua. Zenbait zerga prozedura ebazteko epeak.

Ondoren adierazten den gehieneko epean jakinaraziko da jarraian aipatzen diren zerga kudeaketako prozeduren ebazpena:

<i>Prozedura</i>	<i>Epea</i>
1. Zenbatespen objektiboko zeinu, indize eta moduluen murrizpena baimentzeko prozedura, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 40.3 artikuluan arautua.	Bi hilabete
2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Sozietateen gaineko Zergari lotuta egotearen ziurtagiriak emateko prozedura, maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 18.2.a) artikuluan aipatua.	Hilabetea
3. Mugaldeko Langileen Erregistroan aurkezten diren alta eskaerak, aldaketak egitekoak zein berritzekoak ebazteko prozedura, abenduaren 10eko 90/1996 Foru Dekretuak, Ogasun eta Finantza Departamentuan Mugaldeko Langileen Erregistroa sortzen duenak, 3., 4. eta 5. artikuluetan arautua.	Bi hilabete
4. Kooperatiben arteko lankidetzarako erakunde izatea aitortzeko prozedura, maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauak, kooperatiben zerga	Hiru hilabete

erregimenari buruzkoak, 16.5 artikuluan jasotakoa.	
5. Enpresak sustatzeko sozietateen araubidea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 60. artikuluan jasotakoa, aplikatzea baimentzeko prozedura.	Hiru hilabete

2. artikulua. Zenbait prozedura epe barruan ez ebazteak dakartzan ondorioak.

Bat. Jarraian aipatzen diren prozeduretan interesatuek egiten dituzten eskaerak ezetsitzat jo ahal izango dira horiek ebazteko gehieneko epea amaitu eta ebazpen espresurik jakinarazi ez denean:

1. Langile lekualdatuentzat ezarrita araubide bereziaren aplikazioa aukeratzeko prozedura, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 4. artikuluan eta zerga horren erregelamendua onartzen duen abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren 6. artikuluan aipatua.

2. Zenbatespen objektiboko zeinu, indize eta moduluen murrizpena baimentzeko prozedura, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 40.2 artikuluan arautua.

3. Zenbatespen objektiboko zeinu, indize eta moduluen murrizpena baimentzeko prozedura, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 40.3 artikuluan arautua.

4. Kooperatiben arteko lankidetzarako erakundeak izatea aitortzeko prozedura, maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauak, kooperatiben zerga erregimenari buruzkoak, 16.5 artikuluan jasotakoa.

5. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari lotuta egotearen ziurtagiriak emateko prozedura, maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 18.2.a) artikuluan aipatua.

6. Europako Espazio Agentziaren eragiketak Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuestea baimentzeko prozedura, abenduaren 14ko 1617/1990 Errege Dekretuan arautua. Dekretu horrek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbait salbuespenen hedadura zehaztu zuen, Europako Espazio Agentzia sortu zuen 1975eko maiatzaren 30eko Hitzarmena aplikatzeko.

7. Bidaiarien erregimenean egindako salmentengatik Balio Erantsiaren gaineko Zergan ordaindutako kopuruak entitate laguntzaile jakin batzuek itzultzea baimentzeko prozedura, zerga horren erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/192 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 9.1.2.B) artikuluan jasotakoa.

8. Gizaldeko, ongitzako edo hezkuntzako jardueretan aritzen diren organismoek ondasun emateak Europar Batasunetik kanpora esportatzen dituztenean salbuespenerako eskubidea dutela aitortzeko prozedura, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 9.4 artikuluan aipatua.

9. Ondasun inportazioak salbuesteko beharrezko diren administrazio baimenak emateko prozedura, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretu bidez onartuak, 17. artikuluan arautua.

10. Ibilgailu jakin batzuen salmentei, batasunaren barruko erosketei edo inportazioei zerga tasa murriztua aplikatzeko eskubidea aitortzeko prozedura, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzen duenak, 91.Bi.1.4 artikuluan jasotakoa. Ibilgailu horiek dira aulki gurpildunetan dauden minusbaliatuak garraiatzeko autotaxi edo autoturismo berezi gisa zuzenean nahiz aurrez egokituta erabiltzeko diren ibilgailuak eta, orobat, aurrez egokituta nahiz egokitu gabe, aulki gurpildunetan dauden minusbaliatuak nahiz mugikortasun mugatua dutenak ohikotasunez garraiatzeko ibilgailu motordunak.

11.¹ Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio lurraldean finkatu gabeko enpresari edo profesionalei itzulketak egiteko prozedura, BEZaren erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak 31. eta 31bis artikuluetan arautua.

12. Garraiobide berrien noizbehinkako salmentengatik ordaindutako BEZa itzultzeko prozedura, BEZaren erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak 32. artikuluan aipatua.

13. Zeinu edo moduluen murrizpena onartzeko prozedura, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen erraztua aplikagarri duten jarduera enpresarialetan suteak, uholdeak, hondoratzeak edo ekipo industrialaren matxura handiak gertatu eta horrek jarduera aurrera eramateko kalte larria dakarrenean. BEZaren erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak 38.4 artikuluan araututako prozedura da.

14. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezian konpentsazioak itzultzeko prozedura, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak 48.1 artikuluan arautua.

15. Subjektu pasibo baten baino gehiagoren BEZaren autolikidazioak dokumentu bakarrean aurkeztea baimentzeko prozedura, BEZaren erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak 71.5 artikuluan aipatua.

¹ 11. apartatu hau uztailearen Maiatzaren 18ko 13/2010 FORU DEKRETUAREN 3. artikulua aldatu du. Aipatutako foru dekretuak honako hauek aldatu ditu: 64/2008 Foru Dekretua, zentsu betebeharrak eta IFZri dagozkionak garatzen dituenak, 94/1996 Foru Dekretua, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpenari buruzkoa, eta 14/2009 Foru Dekretua, zenbait zerga prozedura ebazteko epeei buruzkoa. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. (G.A.O. 2010-05-21)

16. Erregistro liburuen inguruan baimenak emateko prozedura, BEZaren erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak 62.5 artikuluan arautua.

17. Harreman diplomatiko eta kontsularren esparruan egindako eragiketa salbuetsiengatik jasandako BEZa itzultzeko prozedura, abenduaren 29ko 3485/2000 Errege Dekretuaren 10. artikuluan aipatua. Errege dekretu horrek araututa utzi zituen erregimen diplomatiko eta kontsularrean nahiz nazioarteko erakundeen erregimenean aplikatu beharreko frankizia eta salbuespenak, eta ibilgailuen erregelamendu orokorra ere aldatu zuen, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuan onartutakoa.

18. Aktibo eta pasibo fiskalaren hobekuntzarako trafiko eskaerak tramitatzeko prozedura, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 24. artikuluan eta Batzordearen 1993ko uztailaren 2ko 2454/1993/EE Erregelamenduak, Batasuneko Aduana Kodearen aplikazioari buruzkoak, 506. artikuluan aipatua.

19. Ezusteko edo ezinbesteko kasuetan izandako galeraren frogabideak bidezkoak diren ala ez erabakitzeko prozedura, zerga bereziei ez lotzeko. Bi xedapen hauek jasotzen dute prozedura hori: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretua, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzea (6.2 artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretua (16.6 artikulua).

20. Esportazioagatik, produktuak gordailu fiskalean sartzeagatik, igorpen bermatuen sisteman edo urrutiko salmenten sisteman fabrikazio zerga bereziak itzultzeko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzean (10.1 artikuluen a), b), c) eta d) letrak), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (7., 8., 9. eta 10. artikulua).

21. Erregistratu gabeko operadoreek emandako bermeak deuseztatzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 33.2 artikuluen g) eta h) letretan aipatua.

22. Zerga bereziei lotutako produktuak igorpen bermatuen sisteman jasotzen dituztenek emandako bermeak deuseztatzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 33.2 artikuluen g) eta h) letretan aipatua.

23. Zerga bereziei lotutako produktuak urrutiko salmenten sisteman jasotzeko zerga ordezkariak emandako bermeak deuseztatzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 33. artikuluan arautua.

24. Batasun barruko zirkulazioan izandako irregulartasunengatik ordaindutako zerga bereziak itzultzeko prozedura, erregulartasunaren froga batasunaren gainerako lurralde eremuan aurkeztzen denean. Bi xedapenetan dago jasota prozedura hau: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzean

(17. artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (17.2 artikulua).

25. Batasun barruko zirkulazioan izandako irregulartasunengatik ordaindutako zerga bereziak itzultzeko prozedura, eragiketa bi aldiz zergapetu denean. Bi xedapenetan dago jasota prozedura hau: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzekoan (17. artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (17.4 artikulua).

26. Xingolen ordeztasun markak fiskal batzuk erabiltzea baimentzeko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzekoan (18.7 artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 1165/1995ko 4 Errege Dekretuan (26. artikuluen 3. eta 4. apartatuak).

27. Osasun, teknika edo merkataritza alorreko beharreetatik industrien proposatutako desnaturalizatzaileak onartzeko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzekoan (20.3 artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (75.2 artikulua).

28. Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga berezia itzultzeko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzekoan (22. artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (54. artikulua).

29. Garagardoaren, tarteko produktuen eta alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga bereziak itzultzeko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzekoan (23.2. artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (57.4. artikulua).

30. Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga berezia itzultzeko prozedura, artisau fabrikazioan prestatu eta edari deribatuen fabrika batera zuzendutako edariengatik. Bi xedapenetan dago jasota prozedura hau: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzekoan (40. artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (100. artikulua).

31. Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga berezia itzultzeko prozedura, fabrikazio prozesuetan alkohola erabiltzen denean. Bi xedapenetan dago jasota prozedura hau: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzekoan (43. artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (80. artikulua).

32. Hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren itzulketa baimentzeko prozedura, erregai eta karburantez besteko erabilera ematen zaienean. Bi xedapenetan dago jasota prozedura: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzeakoan (52.a) artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (109. artikulua).

33. Hidrokarburoen gaineko Zergan erregai eta karburantez besteko erabilerengatik industria ustiapenen titularrei itzuli beharreko kuoten ordainketa tramitatu eta xedatzeko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzeakoan (52.a) artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (109. artikulua).

34. Gasolio hornitzaileei Hidrokarburoen gaineko Zerga itzultzeko prozedura, itsasontziei hornitzen zaienean. Bi xedapenetan dago jasota prozedura: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzeakoan (52.b. artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (110. artikulua).

35. Hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren itzulketarako eskubidea aitortzeko prozedura, zergari lotutako produktuak kutsagarritasun gutxiagoko produktuen esperimendu teknologikoetarako erabiltzen direnean. Bi xedapenetan dago jasota prozedura: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzeakoan (52.c. artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (111. artikulua).

36. Kutsagarritasun gutxiagoko produktuen esperimendu teknologikoak egiten dituztenei hidrokarburoen gaineko zergagatik itzuli behar zaizkien kuoten ordainketa tramitatu eta xedatzeko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzeakoan (52.c) artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (111. artikulua).

37. Hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren itzulketarako eskubidea aitortzeko prozedura, zergari lotutako produktuak fabrikara edo gordailu fiskalera bueltatzen direnean nahi gabe beste batzuekin nahastu edo kutsatzeagatik. Bi xedapenetan dago jasota prozedura: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzeakoan (52.d. artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (112. artikulua).

38. Tabako laboreen gaineko zerga berezia fabrikari edo gordailu fiskalari itzultzea baimentzeko eta itzuli beharreko kuotak zehazteko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992

Legera egokitzean (62. artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (124. artikulua).

39. Alkohola helmugako establezimenduan partzialki desnaturalizatzea baimentzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 73.3 artikuluan aipatua.

40. Batasunaren gainerako lurralde eremutik jasotako alkohola hartzaileak proposatutako establezimenduan desnaturalizatzea baimentzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 73.4 artikuluan aipatua.

41. Alkoholaren desnaturalizazioa sorburuko lekuan edo aduanan egin beharrean aduanak berak baimendutako establezimenduan egiteko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 73.5 artikuluan aipatua.

42. Gasolioa edo kerosea Batasunaren gainerako lurralde eremutik jasotzen denean trazatzaile eta markatzaileak etendura erregimena amaitu aurretik gehitzea baimentzeko prozedura, gehitze hori arauzkoa denean, produktu horiek salbuesteko edo tasa murriztua aplikatzeko. Zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren 114.3 artikuluan araututako prozedura da.

43. Aireportuetako instalazioak inskribatzeko eta horietan hidrokarburoak zergatik salbuetsita jaso ahal izateko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzean (51.2.a) artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (101.5 artikulua).

44. Hidrokarburoen gaineko zergaren salbuespen kasuetan hornidura baimentzeko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzean (51.2. artikuluen c), d), e) eta g) letrak), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (103. artikuluko 1. eta 2. zenbakiak).

45. Elektrizitatea ekoizten duten enpresak, trenbide garraiokoak, itsasontzi eta aireontzien eraikuntza zein mantenimendukoak, eta labe garaiak hidrokarburoen gaineko zergatik salbuetsita bezala inskribatzeko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzean (51.2 artikuluen c), d), e) eta g) letrak), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (103.3 artikulua).

46. Fabrika instalazioen barruan zein haietatik kanpo tabako laboreak deuseztatzea edo desnaturalizatzea baimentzeko prozedura, tabako laboreen gaineko zergari ez lotzeko edo zergatik salbuesteko. Bi xedapenetan dago jasota prozedura: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzean (57. eta

61.1 artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (122. artikulua).

47. Zientzia edo kalitate azterketak egitean tabako laboreen gaineko zergaren salbuespena aplikatzea baimentzeko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea egokitzeak (61.1.b) artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (123. artikulua).

48. Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari lotu gabekoa dela edo salbuetsita dagoela aurrez aitortzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan arautua.

49. “Jeep” motako edo lurralde orotarako ibilgailuak eta soil-soilik industrian, merkataritzan, nekazaritzan, osasunean edo zientzian erabiltzekoak diren ibilgailuak homologatzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan arautua.

50. Gordailu fiskala ezartzeko kudeaketa zentroak emandako baimena, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren 11.1 artikuluan aipatua.

51. Fabrikazio zerga berezien lurraldeko erregistroan establezimenduak inskribatzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren 40. artikuluan aipatua.

52. Kudeaketa zentroak berme orokorra baimentzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren 45.2 artikuluan jasotakoa.

53. Aromatizatzaileak fabrikatzeagatik itzulketarako eskubidea aplikatzea kudeaketa zentroak baimentzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren 54.3 artikuluan aipatua.

54. Edari alkoholunak lokal berean fabrikatzea Kudeaketa zentroak baimentzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren 56.2 artikuluan aipatua.

56. Zergapeturiko beste produktu alkoholiko batzuk lortzen diren tokian desnaturalizatu gabeko alkohola fabrikatzea kudeaketa zentroak baimentzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren 56.3 artikuluan aipatua.

56. Ikerketa zientifikoan erabiltzeagatik alkohola zergarik ordaindu gabe hornitzea kudeaketa zentroak baimentzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 79. artikuluan aipatua.

57. Alkohola sintesi bidez fabrikatzea kudeaketa zentroak baimentzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 84.7. artikuluan aipatua.

58. Proiektu aitzindarietan erabilitako biokarburanteak zergaz salbuestea kudeaketa zentroak baimentzeko prozedura. Bi xedapen hauetan jasotako salbuespena da: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzeakoan (51.3 artikulua), eta zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuan (105.3. artikulua).

59. Hidrokarburoak biokarburanteekin nahastea kudeaketa zentroak baimentzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren 108.bis.3 artikuluan aipatua.

60. Biokarburantea gordailu fiskal logistikoetan sartzen denean, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 108.bis.4 artikuluan jasotako prozedura kudeaketa zentroak baimentzeko prozedura.

61. Fabrikazio zerga berezien lurraldeko erregistroan inskribatutako establezimenduen titularitatea aldatzea eta haien jarduera uztea baimentzeko prozedura, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren 42. artikuluan aipatua.

62. Martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzeakoak, 46.2 artikuluan aipatzen dituen produktuak karburante gisa erabiltzea eta artikuluko horretako 3. apartatuan aipatutako hidrokarburoak erregai gisa erabiltzea baimentzeko prozedura, foru dekretu horren 54.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

63. Bietanolerako desnaturalizatzaile bat baimentzeko prozedura, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzeakoak, 50.bis artikuluan ezarritako zerga tasa biokarburanteei aplikatzen zaienean, zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 108.bis.8 artikuluan jasotakoaren arabera.

64. Uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak, zerga berezien erregelamendua onartzen duenak, 3. artikuluan ezartzen duen zerga hobekuntzako erregimena baimentzeko, eta, hala badagokio, titular baimendua inskribatzeko prozedura.

65. Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergaren salbuespena aitortzeko prozedura, martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauak, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergarenak, 6.bat artikuluen a), b) eta c) letretan aipatua, baita onura hori itzulketa bidez aplikatzen denean ere artikuluko bereko 2. apartatuan jasotakoaren arabera.

66. Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergaren salbuespena aplikatzeko prozedura, martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauak, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergarenak, 6.bat artikuluko f) letraren 1etik 5era arteko apartatueta jasotakoa.

67. Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergaren lurraldeko erregistroan zergaren subjektu pasiboak inskribatzeko prozedura, uztailaren

15eko 736/2002 Foru Aginduak, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga kudeatzeko arauak onartzen dituenak, 7. artikuluan jasotakoa.

68. Erabilera profesionaleko gasolioagatik itzulketa partzialak egiteko prozedura, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzeak, 52.bis artikuluan finkatua. Prozedura arau urtarrilaren 22ko 35/2007 Foru Aginduak garatu zuen, hain zuzen ere, Hidrokarburoen gaineko zerga eta zenbait hidrokarburoen txikizkako salmenten gaineko zergaren tasa autonomikoaren aplikazioari dagozkion kuotak zati batean itzultzeko prozedura ezarri, eta zerga bereziei buruzko martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan izendapen konbinatuko kodeei egiten zaizkien erreferentziak eguneratzen dituenak.

69. Kontribuzio berezien ordainketak geroratu eta zatikatzea onartzeko prozedura, Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 33.3 artikuluan jasotakoa.

70. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren zerga onurak emateko prozedura, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 4.2 artikuluan jasotakoa.

71. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren zerga onurak emateko prozedura, bi xedapen hauetan aipatua: apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bateratua onartzekoan (15. artikulua), eta azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretuan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzekoan (11. artikulua).

72. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauak 2. eta 4. artikuluetan aipatzen dituen zerga onurak zerga horretan emateko prozedura.

73. Fakturarik ez egitea baimentzeko prozedura, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak 3.1.e) artikuluan jasotakoaren arabera.

74. Faktura egiteko obligazioa tiketa eginez betetzea baimentzeko prozedura, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak 4.1.n) artikuluan jasotakoaren arabera.

75. Fakturak edo ordezeko agiriak eragiketaren hartzaileak edo Europako Batasunean kokatu gabeko hirugarren batek egitea baimentzeko prozedura (hirugarrena Kanarietan, Ceutan edo Melillan ez badago edo kokaturik dagoen herrialdearekin elkarri laguntzeko tresna juridikoren bata adostu bada). Hori guztia, ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, fakturatzeko obligazioak arautzen dituenak, 5.4 artikuluan jasotakoaren arabera.

76. Ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, fakturatzeko obligazioak arautzen dituenak, 6.1 artikuluan aipatzen dituen datu guztiak fakturan ez agertzea baimentzeko prozedura, foru dekretu horren 6.7 artikuluan jasotakoaren arabera.

77. Fakturan hartzailearen datuak ez jartzeko ezarrita dagoen 100 euroko muga ez aplikatzea baimentzeko prozedura, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak 6.8 artikuluan jasotakoaren arabera.

78. Faktura zuzentzaileetan zer faktura zuzentzen diren ez zehaztea eta bakarrik zein epealдитakoak diren adieraztea baimentzeko prozedura, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak 13.4 artikuluan jasotakoaren arabera.

79. Fakturak edo ordezeko agiriak bide elektronikoz bidaltzean erabiltzekoak diren egiaztapen elementuak baimentzeko prozedura, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak 18.1.c9 artikuluan jasotakoaren arabera.

80. Fakturak edo ordezeko agiriak gordetzeko obligazioa hirugarren batek betetzea baimentzeko prozedura, hirugarren hori Europako Batasunean kokaturik ez dagoenean, non eta bere kokapena ez dagoen Kanarietan, Ceutan edo Melillan, edo kokaturik dagoen herrialdearekin ez den adostu elkarri laguntzeko tresna juridikoren bat. Hori guztia ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, fakturatzeko obligazioak arautzen dituenak, 19.4 artikuluan jasotakoaren arabera.

81. Kontu korrante fiskala irekitzea baimentzeko prozedura, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorrak, 70.3 artikuluan jasotakoaren arabera.

82. Enpresak sustatzeko sozietateen araubidea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 60. artikuluan jasotakoa, aplikatzea baimentzeko prozedura.

Bi. Jarraian aipatzen diren prozeduretan interesatuek egiten dituzten eskaerak onetsitzat jo ahal izango dira horiek ebazteko gehieneko epea amaitu eta ebazpen espresurik jakinarazi ez denean:

1. Mugaldeko Langileen Erregistroan aurkezten diren alta eskaerak, aldaketak egitekoak zein berritzekoak ebazteko prozedura, abenduaren 10eko 90/1996 Foru Dekretuak, Ogasun eta Finantza Departamentuan Mugaldeko Langileen Erregistroa sortzen duenak, 3., 4. eta 5. artikuluetan araututakoa.

2. Legez aitortutako irabazi asmorik gabeko organismo edo entitate jakin batzuek beren kideei zuzenean egindako zerbitzu prestazioek eta horiei erantsitako ondasun salmentek salbuespenerako eskubidea dutela aitortzeko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzeakoan (20.Bat.12 artikulua), eta zerga horren erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuan (5. artikulua).

3. Entitate edo establezimenduei gizarte izaera aitortzeko prozedura, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 6. artikuluan arautua.

4. Zenbait entitatek beren kideei zuzenean egindako zerbitzuek salbuespenerako eskubidea dutela aitortzeko prozedura, bi xedapen hauetan jasotakoa: abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzeak (20.Bat.6 artikulua), eta zerga horren erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuan (5. artikulua).

XEDAPEN GEHIGARRIA. Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuaren 44. artikulua aldatzea.

Honela gelditu da idatzita ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 44. artikuluko 2. apartatua dioena:

«Eskaera Zerga Administrazioari egin eta horretan tramitatuko da, foru dekretu honen 48. artikuluan ezarritako prozedura orokorrari jarraikiz eta artikuluko honetan jasotako berezitasunak aplikatuta.

Alabaina, prozeduraren ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, eta behin epe hori igarota ezetsitzat joko da subjektu pasiboaren eskaera.»

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru dekretu hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurak hasiera eman zaien datako araudiaren arabera bideratuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen dira foru dekretu honetan ezarritakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta, bereziki, urriaren 17ko 81/2000 Foru Dekretua, Ogasun eta Finantza Departamentuak tramitatu behar dituen zerga kudeaketako prozedura jakin batzuk ebazteko epeak finkatu eta prozedura horiek epe barruan ez ebazteak dakartzan ondorioak finkatzen dituenak.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

ALDAKETAK

Honako zerrendan Foru Dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Maiatzaren 18ko 13/2010 FORU DEKRETUA, honako hauek aldatzekoa: 64/2008 Foru Dekretua, zentsu betebeharrak eta IFZri dagozkionak garatzen dituena, 94/1996 Foru Dekretua, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpenari buruzkoa, eta 14/2009 Foru Dekretua, zenbait zerga prozedura ebazteko epeei buruzkoa.*
 - Bere 3. artikulua 2. artikulua eta 11. apartatua aldatu du.